

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak 600.000 euroko laguntza emango du 2016. urtean nekazaritza-aseguruak izenpetzeko

Aseguruaren hartzaileei diru-laguntzaren % 75 aurreratuko die poliza formalizatzeko uanean

Lunes, 24 de agosto de 2015

Nafarroako Gobernuak 600.000 euroko laguntza emango du 2016. urtean nekazaritza-aseguruak izenpetzeko, 2015eko aseguru-planari dagozkionak. Alde horretatik, azpimarratu behar da Foru Gobernuak aseguruaren hartzaileei diru-laguntzaren % 75 aurreratuko diela poliza formalizatzeko uanean.

Jarraian, jasotako eskaera guztiak ebaluatu ondoren eta dagoen aurrekontuaren arabera, onuradun bakoitzari dagokion gehieneko diru-laguntza gauzatzen da eta, hala badagokio, gainerako zenbatekoa ordaintzen da, harik eta diru-laguntzaren % 100 osatzen den arte. Diru-laguntza horiek xede horretarako Estatuko Administrazio Orokorrak, Aseguruaren Estatuko Erakundearen (ENESA) bidez, emandakoen osagarriak dira. Baina Europako araudiak dioen moduan, diru-laguntza publiko guztiak (Nafarroako Gobernu eta ENESA) ez du % 65 gaindituko nekazaritza-aseguru eta abere-aseguruetan, eta % 90 hildako animaliak kendu eta desegiteko.

Deialdi hori [iragan osteguneko, abuztuak 20, Nafarroako Aldizkari Ofizial](#)ean argitaratu zen, eta Nafarroako Gobernuak otsailean hartutako erabakiaren barnean sartzen da; haren arabera, 2,4 milioi euroko diru-laguntzen deialdi orokorra onartu zen. Diru-laguntza guztiak osatzeko beste deialdia, 1,8 milioi eurokoa, martxoan onartu zen, 2015ean, urte horri zegozkion aseguruak izenpetzeko. Alde horretatik, aipatu beharra dago aseguru-planak 18 hilabeterainokoak direla.

Hala, egungo deialdiak nekazaritza-aseguru jakin batzuk kontratatzeko laguntzak arautzen ditu, 2015eko konbinatutako nekazaritza-aseguruaren planari dagozkionak, 2016eko urtarrilaren 1aren eta uztailaren 31 artean izenpetzen diren polizak.

Nekazaritza-sektorean diruz lagundu daitezkeen lerroak hazten ari diren geroz eta estaldura handiagoko aseguruetarako izango dira ondorengo ustiapenatarako: frutak; estalkipeko barazkiak; udazken-neguko zikloa duten atari zabaleko barazkiak; belarkara estentsiboak; fruitu lehorrak; kaki edo beste fruta-arbola batzuk (kiwia eta elorri beltza); ardotarako mahatsa; olibariak, gerezia; udaberri-uda zikloa duten barazkiak; eta segidako zikloak.

Abereen sektorerako, honako hauek ustiatzeko aseguruak jasoko

dituzte diru-laguntzak: hazteko eta aurrerakoen hazkuntzako behi-azienda; ardi-ahuntzak; zezenketetarako behiak; gizentzeko behiak; konpentsazioa bazken galerengatik; balorazio genetiko handiko behiak; zaldiak; haragitarako hegaztiak; arrautzak jartzeko hegaztiak; hazteko behi-aziendak; eta txerriak.

Azkenik, ustiapen berriztagarrian eta ez berriztagarrian hildako animaliak desegitearen ondorioz sortutako gastuak ordaintzeko aseguruetarako diru-laguntzak ere badira.